

DONOSTIA. Literatura hitzaldi sorta egingo dute Barojaren omenez. Besteak beste, ' Vidas sombrías ' nobelaren euskarazko itzulpena kaleratuko dute

Erredakzioa.

Jardunaldiak eta hitzaldiak egin eta liburuak argitaratuko dituzte Udalak eta Foru Aldundiak, Pio Barojaren heriotzaren 50. urteurrenaren harira.

Maiatzaren 17tik 25era bitartean, Pio Baroja eta pentsamendua izeneko jardunaldiak egingo dira Koldo Mitxelenan. Bertan, Barojaren obran oinarrituta, gaztelaniazko literatura unibertsalean pentsamendu modernoaren sorrera aztertuko dute. Arantxa Urretabizkaia, Fernando Marias eta Kike Diaz de Radak parte hartuko dute, besteak beste.

Urriaren 24tik 27ra, bestalde, Pio Baroja abenturazalea izenburupean, jardunaldiak egingo dituzte Liburutegi Nagusian, Lugaritz kultur etxean eta San Telmo museoan. Bertan, Barojak abenturarekin duen harremanari begiratuko diote hainbat ikuspuntutatik.

Honekin batera, hainbat liburu argitaratuko dira. Ekainean, Felix Marañaren Los Baroja y Gipuzkoa izeneko; azaroan Vidas sombrías eleberriaren euskarazko edizioa, Felipe Juaristik itzulia, eta abenduan, Pio Baroja, escritor y medico liburua. Donostiarekin zerikusia duten Barojaren hainbat testuren euskarazko itzulpenak ere argitaratuko dituzte.